

## HAUSNARKETA ESTRATEGIKOAREN AURRETIKO FASEA JARRAIPEN BATZORDEA

DATA: 2016/04/29; ORDUA: 19:00-21:00

LEKUA: UDALETXEA

### UDALA:

Joseba Ormazabal (EAJ)

Patxi Amantegi (EAJ)

Ibai Iriarte (EH BILDU)

Peio Etxabe (EH BILDU)

Iñigo Cabieces (PODEMOS)

Iñigo Muñoz (teknikaria).

**LAGUNTZA TEKNIKOA:** Ana López, Eider Larrañaga eta Aiala Zubieta (Enea)

OHARRA: Akta honekin batera bileran egindako aurkezpena atxikituta bidaltzen da.

## GAI ZERRENDAA

1. ENEAREN AURKEZPENA
2. PROPOSAMENAREN AURKEZPEN LABURRA
  - ELEMENTU GAKOAK
  - JARRAIPEN BATZORDEA PROZESUAN
3. HERRITARREN PARTE-HARTZEA PROZESUAN
  - IRIZPIDEAK ETA KONPROMISOAK
  - IKUSPEGIA ETA MAHAI SEKTORIALAK EGITURATZEKO LANKETA

## LABURPENA

### 1. ENEAREN AURKEZPENA

Iñigo Muñoz, Udaleko teknikariak, ongietorria ematen die bertaratutakoei eta, bileraren helburu nagusia azaldu ondoren, proiektu hau aurrera eramateko Enea enpresa kontratatu dela azaltzen du, bertan dauden Eider Larrañaga, Aiala Zubieta eta Ana López aurkeztuz.

Jarraian, Anak hartu du hitza, enpresaren aurkezpene laburra eginez. Enearen ibilbidea, lan-ildo nagusiak eta eskaintzen dituen zerbitzuak aurkeztu ditu, horien artean iraunkortasun politikak

eta parte-hartzea nabarmentzen dituelarik. Ondoren, prozesu honetan parte hartuko duen lantaldea aurkezten du, norberaren eginkizunen arabera. Diziplina anitzeko taldeari dagokionez, arlo sozial eta ekonomikoak jorratzeko lkertalde enpresarekin elkarlanean arituko direla azaltzen du, zeinek in mota honetako proiektuetarako aliantza sendoa duten.

## 2. PROPOSAMENAREN AURKEZPEN LABURRA

### ELEMENTU GAKOAK

Jarraian, prozesu hau aurrera eramateko Eneak egindako proposamenaren gako nagusiak azaltzen dira, helburu nagusietatik abiatuz. Honen guztiaren amaieran helburu nagusia gobernantza eredu berri bat lortzea dela aipatzen da, zeinak herritarrak politika publikoetara hurbiltzea ahalbidetuko duen eta, horrekin batera, Udalaren gardentasunaren ildoan aurrerapauso nagusiak ematea posible egingo duen. Horretarako urte honetan zehar 2030. urtera begirako hausnarketa estrategiko bat egingo dela azaltzen da, Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plan berria formulatzen lagunduko duena.

Honekin lotuta, prozesua gidatuko duten lau gako nagusiak aurkezten dira:

- **Tokiko Agenda 21**, ildo honetan udalak duen esperientzia eta errekonozimendua azpimarratuz, eta berau berritzearekin batera **governantza** eredu berria sortzeko aukera.
- **Gardentasuna** politika publikoetan, sortuko den Plan berriaren jarraipen ereduari lotuta.
- **Klima aldaketa**, aurrekoan bezala, orain arte emandako pausuak balorean jarriz eta gaiari heltzen jarraitzeak duen garrantzia azpimarratuz.
- **Berdintasun** ikuspegia, modu zeharkakoan landuko den gaia dela azalduz, bai prozesuari begira bai edukien lanketari dagokionez.

### TALDE SUSTATZAILEA PROZESUAN

Lan hau egiteko definitu diren hiru parte-hartze eremuak aurkezten dira, **Talde Sustatzailea** (herritarrak), **Lankidetzeta Mahaia** (udal teknikariak) eta **Jarraipen Batzordea** (politikariak), hain zuzen ere. Honekin batera, modu laburrean, proiektuaren faseak eta fase hauetan talde bakoitzak izango dituen zeregin nagusiak azaldu dira. Prozesuan zehar gakoak diren momentuetan, hiru taldeen bilerak egitea aurreikusten da, fase horiekin erlazionatutako gai edo elementu klabeak guztion artea adoste aldera.

Bertaratutakoei atal honen inguruko zalantzak edo ekarpenak mahai gainean jartzera gonbidatzen zaie. Jarraian, sortutako eztabaidaren laburpena egiten da:

Ibai Iriartek (EH BILDU) Agenda 21 eta Plan Orokorraren artean lotura zuzena dagoela azaltzen du eta bata eta bestearen artean sor daitezkeen inkoherentziak edo kontraesanak nola kudeatuko diren galdetzen du, bien artean pisu gehiena zeinek duen galdetuz.

Laguntza Teknikotik ondoko erantzuna ematen da:

*Egia da bi planen arteko lotura zuzena dela eta biak lerrokatuta egon beharko luketela, ez bata bestearen gainean, izaera ezberdina baitute. Hala ere, Agenda 21aren baitan tokiko iraunkortasuna helburu duten gaiak bakarrik izango dute lekua. Hori zehazteko prozesu honetan oinarri gisa hartuko den gida metodologiko bat dagoela azaltzen da, zeinak modu oso zehatzean eta gaien arabera, iraunkortasunaren aldeko helburuak eta egin beharrekoak zehazten dituen. Honekin lanketari objetibotasuna eman nahi zaio eta, aldi berean, gatazka sor dezaketen gaietan irizpide teknikoetan oinarritutako erabakiak hartzen lagundu.*

### **3. HERRITARREN PARTE-HARTZEA PROZESUAN**

#### **IRIZPIDEAK ETA KONPROMISOAK**

Jarraian, Eider Larrañagak Talde Sustatzailearekin orain arte egindako bileren berri ematen du, bi saio egin direla azalduz eta diseinu faseari dagokion azken bilera faltako litzatekeela argituz. Saio hauetan landutako gaien artean, prozesuari lotutako herritarren parte-hartzea gidatuko dituzten irizpide eta konpromisoetan jartzen da arreta.

Lehenik eta behin, oraindik Talde Sustatzailean gai hau sakonago landu behar dela azaltzen da, azkeneko bileran denbora gutxi gelditu zelako lan hau egiteko eta hau guztia lotuta eta adostuta izatea oso garrantzitsua delako. Beraz, Jarraipen Batzordean honen inguruan jasotako ekarpenak hurrengo Talde Sustatzailearen bilerara eramatea egokitzat jotzen da, guztion artean herritarren parte-hartze marko bat adoste aldera.

Zehaztutako 17 irizpide eta konpromisoak azaltzen dira, atalez atal eta banan bana, bakoitzaren inguruko beharrezko azalpenak emanez.

Jarraian, honen inguruan sortutako zalantzak eta ekarpenak azaltzen dira:

#### **12. PARTAIDETZAREN IZAERA**

- Ibai Iriartek (EH BILDU), prozesuak inklusiboa izan behar duela aipatzen du, eta bileren izaerak ez duela izan behar norberaren iritzia ezagutzeko baizik eta ekarpenak jaso eta barneratzeko.
- Patxi Amantegik (EAJ) iritzia beti kontuan izaten direla aipatzen du, nahiz eta batzuetan herritarrek sentsazio hori ez izan, erantzunik jaso ez dutelako.
- Joseba Ormazabalek (EAJ) herritarren eskaerei beti kasu egin behar izatea zalantzan jartzen du, adibide bat jarritz.
- Hau esandakoarekin Ibai Iriarte (EH BILDU) eta Peio Etxabe (EH BILDU) ez daude ados eta Tolosa 2015 prozesuaren berdina ez gertatzea eskatzen dute.

Eztabaida honen inguruan, Laguntza Teknikoak ondoko azalpena ematen du:

*Prozesu hau aurrera eramateko hiru gune sortu direla gogoratzen da (Lankidetzeta mahaia, Jarraipen Batzordea eta Talde Sustatzailea), norberaren interesak alde batera uzteko*

*asmoarekin eta elkarren arteko lana egiteko helburuarekin. Indarrak prozesuan jarriko direla azaltzen da, Plana aitzakia on bat dela aipatuz, gobernantza eredu berria eraikitzen lagunduko duen tresna. Hau guztia kontuan izanda, teknikariek herritarrek egindako proposamenen bideragarritasuna aztertuko dutela azaltzen da, eta bideragarriak ez diren kasuetan, dagozkion argudioak emanez, Planetik kanpo utzi beharko direla argituz. Honekin lotuta, hiru taldeen arteko oreka lortzeari garrantzi berezia ematen zaio, adostasun zubiak eraikitzeko beharra mahai gainean jarritz.*

#### **14. ERABAKIAK HARTZEA**

- Ibai Iriarte (EH BILDU) ados dago erabakiak hartzeko adostasuna landu behar dela aipamenarekin, gehiengoak ekidinez, baina elementu berri bat gehitzea proposatzen du: talka sortzen dituzten gaietara irtenbidea eman beharko zaie, horretarako, kasuan kasu, talka konpontzeko egokitzat jotzen den metodologia erabiliz.
- Patxi Amantegik (EAJ), aldiz, ez dio garrantzi handirik ematen adostasuna lortzeari eta askotan gehiengoekin lantzea egokitzat jotzen duela azaltzen du.
- Iñigo Cabiècesek (PODEMOS) eta Ibai Iriartek (EH BILDU) adostasunean oinarritutako erabakiak hartzeak duen garrantzia aipatzen dute.

Gai honen inguruan, Laguntza Teknikoak jarraian zehaztutako aipatzen du:

*Garrantzitsua da adostasunak lantzea eta sorkuntza partekatua bultzatzea beti prozesu honen helburu nagusia gogoan izanda, zeinak gobernatzeko era ezberdinak bilatzen dituen, herritarrak politika publikoetara hurbilduz.*

#### **IKUSPEGIA ETA MAHAI SEKTORIALAK EGITURATZEKO LANKETA**

Ondoren, Aiala Zubietak Talde Sustatzailearen bi bileren emaitzetan oinarrituz landu den mahai sektorialen egituraketa proposamena aurkezten du, horren inguruko ekarpenak egiteko aukera ematen duelarik.

Bertaratutakoak ados daude aurkezten den mahai sektorialen proposamenarekin (Pertsonak, Hezkuntza eta Kultura eta Ekonomia eta Ingurunea). Jarraian, mahai bakoitzean lantzeko proposatzen diren gaiak azaltzen dira.

Ibai Iriartek (EH BILDU) baldintza sozioekonomiko duinak gai zehatz bezala txertatzea eta kulturartekotasuna "Pertsonak" mahaietan sartzea proposatzen du.

Laguntza teknikoak egindako ekarpena jasotzen du eta, aldi berean, berdintasuna gai bezala ez dagoela azaltzen du, gai hau eta parte-hartzearena modu zeharkakoan hiru mahaietan landuko dela azalduz.

Bertaratutakoei eskerrak emanez, bilerari amaiera ematen zaio.